

FONTES
LINGVÆ VASCONVM
stvdia et
docvmenta



SEPARATA

Año XLIV • Número 114 • Enero-Junio • 2012

Mendebaldeko toponimia,
euskararen mugaren adierazle

MIKEL GORROTXATEGI



Gobierno
de Navarra

Mendebaldeko toponimia, euskararen mugaren adierazle

MIKEL GORROTXATEGI*

SARRERA

Mendebaldeko euskararen muga toponimiaren bidez aztertzea zail da ez baitago ikerketa historiko nahikorik, Somorrostro haranean Goio Bañalesek egin eta oraingoz erabat argitaratu gabe dagoena¹ alde batera utzita. Gainera erdian dauden Artzentaletan, Sopusuerta eta Galdamesko dokumentazioa oso urria izateaz gain berria da. Iparraldera joanez gero Castro-Urdiales dugu, baina frantsesen kontrako gerran erre zenez neke da bertan ezer aurkitzea eskuragarri ez dagoen Andra Mariaren elizaren artxibotik kanpo².

Bigarren auzia euskal toponimia zer den erabakitzea da. Gure ustez argi dago euskal toponimoa dela, bere jatorria alde batera, euskaldunek moldatutako edozein izen. Esaterako Santurtzi izena latin jatorriko euskal toponimoa da euskaraz mintzo zirenek moldatu baitzuten jatorrizko Saint Georgi (1075 *Sancti Georgii*³). Hala ere, muga honetan askotan izen hibridoak ageriko zaizkigu eta horrek tentu handiz jokatzera behartzen gaitu. Honek esan nahi du hemen jarri ez direnak ez direla, hala beharrez, erdarazkoak, hizkuntza horri dagozkionak zerrendatzean egongo dira sailkatzen zailak direnak.

Toponimoak maparatzean, geroago ikusiko dugun bezala, ezaugarri nagusi batzuk antzeman daitezke:

1. Kostaldeko toponimiaren erdaratze goiztiarra
2. Aiara inguruko muga iraunkorra
3. Enkarterriko muga nahasia, Castro-Balmaseda erromatar galtzadaren lerrotik hurbil.

* Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeko idazkaria.

¹ Besterik esaten ez den bitartean hemen aipatzen diren izenak Goioren lanetik eta ene datutegitik atera dira.

² Santillana del Mar herrian dagoen elizbarrutiaren artxiboa aztertzea ezinezkoa izan zaigu.

³ «*Sancti Georgii quod est in insula maris in summo rostro*» (Alamo, 1950: 105).

INGURUAREN AZTERKETA UDALKA

Castro-Urdiales

Ez dago ikerketa historikorik eta gaur egungo izenez baliatu behar gara ikertzeko horrek sortzen duen zalantzarekin. Salbuespen bakarra XVI. mendetik dokumentatutako *Ribálzaga* da. Itxuraz euskal izentzat jo ditzakegun bi toponimo daude, *Zarzaga* eta *Maya*, baina inguruan –ez ber-bertan– egon ziren meategiek erabat aldatu zuten dena eta Alen mendian, basoaren erdian dagoen *Trinchera de Basurto* izeneko lekuak trenbidearen lubakia egin zuen langile taldearen arduradunaren izenean du oinarri.

Artzetales

Euskal toponimia urria duen herria: *Betaio* mendia, *Agirre* etxea eta *Iturrión* iturria. Auzo izenak erdarazkoak dira: *Traslaviña*, *Linares*, *Santa Cruz*, *Rebollar*, *Horcasitas*, *La Reneja*, bai eta *Santelices* ere, Muskizen bezala.

Sopuerta

Harana goitik behera zeharkatzen du Flaviobrigako erromatar galtzadak eta Sopuerta eta Zalla artean dagoen mendatetik datorkio izena. Auzo izenetan erdara eta euskara dugu, azkena *Olabarrieta* eta *Obekuri*-n. Toponimo txikietan euskarazkoak ugariak dira: *Landazuri*, *Artatxo*, *Garai*, *Artegi*... 1214ko dokumentu batean gaur egun ezezagunak diren *Fagueto* eta *La Cetrera* ageri dira Sopuertan. Deigarria da dokumentu berean *Soberrone(s)* eta *Tras los Heros* (*Trans los heros* idatzita) agertzea, hauek Galdames eta Artzetalesen, hurrenez hurren, egungo auzoak direlako.

Galdames

Euskal toponimia ugariena duen mendebaldeko herria. Auzo izenetan nagusiak dira euskal toponimoak, erdarazkoak ere badiren arren. Kasu batzuetan egungo erdarazko izenak euskal izen zaharra ordezkatu du XX. mendean: *Montellano*, *Olla*, *Bentorro*, *La Aceña* (*Atxuriaga*), *Urallaga*, *Peñoñuri*, *Llano*, *Villa*, *Loizaga*, *Larrea*, *Txabarri*, *Zubiaga*, *Bellastegi*, *Lexartza*, *Laia*...

Zalla

Galdamesek bezala euskal toponimia du nagusi, baina Balmasedako muga erdara dugu. *Bolunburu* da Cadagua ibaian mendebaldean dagoen auzoa; hurrengo, eta azkena Balmasedara baino lehenago, *La Herrera* dugu. Iparralderago *Otxaran* haran eta auzoa daude, erromatar galtzadan. Bertan dugu *Rétola* auzoa (< **Erretola*?) .

Somorrostro harana

Iparraldeko Muskiz, Zierbena, Abanto eta Santurtzi aztertzean ikusten da kostaldea XVI. menderako erdaldunduta zegoela, euskal toponimoak gutxi eta zaharrak direlako: Zierbenan, herriaren izenaz gain *Atxaga* eta, agian, *Luzuero*, XX. mendean herri etimologia dela medio *Lucero* bihurtu zena. Muskizen herri izenaz gain *Agorriga* (*Río Mayor*) dugu Galdamesko muga. Abanton hasten da euskal toponimia eta hor dugu *Gallarta*

(*Gallarreta* antzina), *Olabarrieta* (*Los Castaños* egun), *Murrieta* edo *Kastielzarra*⁴, antzinako gaztelua izandakoa, egun *El Refor* deitua, bertako ospitalean Francoren garaian «neska gaiztoentzako» erreformatarioarengatik. 1214ko dokumentu batean gaur egun ezagutzen ez dugun *Gastanega* ageri da (Balparda, 401).

Aiara

Muga iraunkorra egon da bertan eta badirudi giltza elebiduna zen Artziniega dugula. Hiriaren inguruko toponimia txikia euskarazkoa da, baina mendebaldean erdara nagusitzen da.

EUSKAL TOPONIMOEN ZERRENDA IPARRALDETIK HEGOALDERA

Ribalzaga (Baró; Estrada & Serna, 2004: 63). Guriezo eta Castro-Urdiales artean 2,5 metroko menhir batetik (*El ilso de Anguia*⁵ deiturikoa) gertu eta bi trikuharri handien artean. Bertan biltzen ziren Bizkaiko Turtzioz herria eta gaur egun Castro-Urdialesko auzoak diren Samanako Batzarra (Junta de Sámano) osatzen zuten Mioño, Ontón, Otañes, Sámano eta Agüera, eta Santullan kontzejua. Aipatutako Batzarra 1518an ageri da, baina 1552rako desegin zen eta horrez geroztik epai iturria izan da. Esanahi bera duen toponimoa dugu Galdames, Trapagaran eta Ortuellako muga, gaur egun *Peñas Negras* deiturikoa eta Portugaleteko hiri-gutunean *Arribelçaga* edo *Arbelçaga* moduan ageri dena. Aldaera bi hauek azaltzen dira gorde diren kopietan, jatorrizkoa desagertu baitzen. Gaur egun *Ribalza* esaten zaio Turtziozen.

Maya (Castro-Urdiales Guriezo). Anguia eta Ventoso mendiaren artean dagoen ingurua. Elgeta hiriak ere *Maya* izena zuen Erdi Aroan.

Perutxote (Otañes). *Callejamala* goiko aldean dagoen esparru zabal baten izena. Bertan katalogatu eta aztertu gabeko eraikin aztarnak daude. Goiko aldean dagoen munarri batek ere izen hau darama (*Ilso de Perutxote*). *Bienandanzas e Fortunas* liburuan Otañesko pertsona izen moduan agertzen da sarritan: «*Título de la pelea de Mendieta e de la muerte [de] Perucho, fijo de Pero Ochote de Otañes, e de Gilete*»⁶.

Betaio: Turtzioz eta Otañes artean dagoen mendia. Esanahi ezezaguna, baina Aralar ondoko Bedaio herri izenaren duen loturaz gain nabarmendu behar da bokalen arteko herskari ahoskabea agertzea.

Agirre: Artzentalesko Santa Cruz auzoko gunea. Izenak berak dioen bezala auzo horretan goien eta agerien dagoen etxea da. Egundakoa *Agarre* esaten zaio.

Turrion: Artzentalesko Agirre etxearen atzeko aldean dagoen iturriaren izena.

⁴ «... e diole este su padre a castiel Carra de Loredo e poblo alli [...]», *Bienandanzas e Fortunas*.

⁵ IGNren mapetan, oker, *El Liso de Anguia* ageri da.

⁶ *Las Bienandanzas e Fortunas* liburuen aipuetaarako A. M. Sánchez Marínek egindako bertsio digitala erabili izan da.

Olabarrieta (Sopuertako auzoa). Bi gunen ditu: *de Arriba* eta *de Abajo*. Dokumentazioan XIX. mende arte *Olabarrieta* moduan dokumentatzen da⁷. Mende horretan hasi zen *Labarrieta* aldaera zabaltzen eta XX. mendearen hasieran, trenbidea egitean, geltokia jarri eta gunen bi zirenez *Las Barrietas* izena eman zioten. Horrek ekarri zuen auzo izenak ahoz *Barrietas de Arriba* eta *Barrietas de Abajo* bihurtzea. Izenaren osagaiak ez dira diruditen bezain argiak. Beheko auzoan burdinolak eta errotak egon ziren, baina Goiko Olabarrietaren ondoko auzoak, XIX. mende arte etxe bakarra zena, *El Sel* izena du.

Garai: Sopuertako *Carral* auzoaren gainean dagoen dorretxea. Gaur egun Sopuerta haran osoa bada ere XIX. mende arte auzo honi esaten zitzaion Sopuerta, izenak berak dioen bezala Avellanedako mendatearen azpian baita. Auzo honetan dago Sopuertako elizarik zaharrena, 1178an *Sancti Martini de Soporta* dokumentatua, nahiz eta eraikuntza hori gaur egungotik urrun egon.

Landazuri: Carral auzoko inguru zabal baten izena, Garai dorretxearen ondoan.

Otxaran: Zallako auzoa, Avellaneda mendatearen azpian. Bertan *Rétola* etxe multzoa dago.

Rétola: Otxaran haraneko etxe multzoa Castro-Balmaseda erromatar garaiko galtzadan.

Bolunburu: Zallako auzoa, bertan dago burdinola, jauregia eta dorretxea. Goiko aldean dagoen mendixkak ere izen bera du. Jatorrizko ebakera *Bolunburu* bada ere gaur egun, erdararen eraginez, *Bolumbúru* hedatu da. Jatorrizko ebaikeraren azken lekukotza mendia bera da, XX. mendean *Bolúmbro* deitua.

Lanzagorta: Desagertutako etxeak, goikoa eta behekoa, deitura ezaguna da inguruan.

Urdanegi: Gordexolako jauregia, *Rodayega* (*Rio de Ayega*) errekaaren ondoan, *Arza* herritik gertu.

Arza: Burgosko auzoa Artziniega eta Gordexolako mugan. Izenaren osagaiak *harri* eta *-tza* direla dirudi, inguru fisikoarekin bat datorren deskribapena.

Garate: Urdanegi eta Mendieta arteko mendilerroko toponimoa, Pando mendian.

Ureta: Artziniegatik eta Erretestik datozen ibaiak elkartzen diren lekua. *Úreta* ahoskatzen da.

Mendieta: Artziniegako auzoa.

Soxoguti: Artziniegako auzoa. Gorago *Soxo* izeneko kontzejua da.

Zaballa: Soxoguti eta Erretes artean dagoen mendia.

Urzaniko: 864ean dokumentatzen da, *Urzanico* moduan (Llorente, 1807: 95)⁸. Gaur egun ahoz *Orzánico* esaten zaio. Añes auzoko etxaldea bada ere auzo honen eta Lexartzuren artean dago.

Lexartzu: Aiarako herria, Añes eta Salmanton artean.

⁷ 1802an Historiaren Errege Akademiak argitaratutako *Diccionario Geográfico-Histórico de España*, ezagunean bietara ageri da *Olabarrieta* edo *Labarrieta* auzoak zerrendatzean, baina bakarrik *Olabarrieta* elizateaz aritzean.

⁸ *Angulo et Salbata et Eversa et Lixarso et Urzanico et Pando et Fluiso et Errico et Desolio et Dobaltia et Salbantone*. Angulo (Bu), Eversa (?), Sálvada / Gorobel (Mendia), Lixartzu, Urzaniko, Pando (mendia), Luxo, Erbi, Soxo, Obaldia eta Salmanton.

Eskutxi: Gorobel mendilerroko izena 806an dokumentatzen da: «*usque ad illa coba de ezquti, et ad illa ponnata, deinde ad sancti romani de flabione*».

Iturrigorri: Gorobel mendilerroko izena, ahoz *Tologorri*, nahiz eta banaka batzuek *Iturrigorri* ere erabil.

Zaballa: Burgosko herria, Gorobel mendilerroaren mendebaldean.

ZALANTZAZKO IZEN ZENBAIT

Kolitza: Balmaseda eta Artzentales arteko mendia. XX. mendearen hasieran *Goriza* eta *Goritza* aldaerak ageri dira dokumentazioan bertatik Sopuertara doan erreka izendatzeko. Erdaraz *Colisa* esaten zaio. Ageri den *Goritza* <> *Kolisa* alternantzia euskara eta erdararen artekoa da, baina dokumentazioa zaharragoa aztertu beharko litzateke.

Egaña: Angulo gainean, Burgosen dagoen toponimoa.

Corteta: Angulo gainean, Burgosen dagoen toponimoa.

BIBLIOGRAFIA

- BALPARDA, G., 1974, *Historia Crítica de Vizcaya y sus fueros*, 2. liburukia, Caja de Ahorros Municipal, Bilbo.
- BAÑALES, G. eta GORROTXATEGI, M., 2007, *Toponimia Histórica de Barakaldo*, Librería San Antonio, Barakaldo.
- , 2008, *Pérdida de la Toponimia Vasca en el Valle de Somorrostro*, Trubea, Muskiz.
- BARÓ PAZOS, J., ESTRADA SÁNCHEZ, M. eta SERNA VALLEJO, M., 2004, *De la Junta de Sámano al Ayuntamiento constitucional (1347-1872)*, Universidad de Cantabria, Santander.
- DEL ALAMO, J., 1950, *Colección diplomática de San Salvador de Oña*, 68 zk., Escuela de Estudios Medievales del CSIC, Madril.
- LLORENTE, J. A., 1807, *Noticias históricas de las tres provincias vascongadas*, 3. liburukia, Madril.
- SÁNCHEZ MARÍN, A. M., 1992, *Istoria de las bienandanzas e fortunas de Lope Garcia de Salazar*, (Ms. 9-10-2/2100 RAH) [memoria de licenciatura], Universidad de Zaragoza, Zaragoza.

LABURPENA

Mendabeldeko toponimia, euskararen mugaren adierazle

Euskarak mendebaldean izan duen muga kokatu nahi izan da toponimian utzi dituen aztarnen bidea. Erabilitako esparrua itsasoa eta Goilautada artekoa izan da, Enkarterri eta Aiara hain justu. Ageri diren toponimoak ikusita badirudi Castro, Balmaseda, Artzeniega, Gorobel lerroa nahiko iraunkorra izan zela.

Gako hitzak: euskara; hizkuntza muga; mendebaldea; toponimia.

RESUMEN

La toponimia vasca occidental como indicadora de la frontera lingüística del euskera

Se ha intentado localizar la frontera occidental del euskera a través de su testimonio en la toponimia. La zona estudiada ha sido la comprendida entre el mar y la Meseta, Encartaciones y Ayala concretamente. Vistos los topónimos recogidos parece que la línea Castro, Balmaseda, Artzeniega, Sierra Salvada fue bastante duradera.

Palabras clave: euskera; frontera lingüística; occidente; toponimia.

RÉSUMÉ

La toponymie basque occidentale comme indicateur de la frontière linguistique de l'euskara

Il s'agit de localiser la frontière occidentale de l'euskara à travers le témoignage des noms de lieu. La zone d'étude est délimitée par la mer et la Meseta, les Encartaciones et Ayala, plus spécifiquement. À la vue des noms de lieu recueillis, il semble que la ligne Castro, Balmaseda, Artzeniega, Sierra Salvada ait été une frontière linguistique durable.

Mots-clés: frontière linguistique; euskara; langue basque; occident; toponymie.

ABSTRACT

The western Basque toponymy as an indicator of the linguistic border of Euskara

Our aim has been to locate the westernmost border of Euskara through the testimony of place names. The study area is bounded by the sea and the Meseta, Ayala and Encartaciones, more specifically. In view of the names collected, it seems that the line Castro, Balmaseda, Artzeniega, Sierra Salvada was a quite durable border.

Keywords: Euskara; language border; west; toponymy.